



ESPACIO PÚBLIC(ITARI)O MARIO PANIEGO. KOMISARIO BERRIAK

Azkuna Zentroa Alhóndiga Bilbao, Bilboko Udaleko Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroak, Mario Paniegoren (Bilbo, 1978) artista bisual eta kontzeptualaren *Espacio Públic(itari)o* proiektua erakusten du Komisario Berriak Eusko Jaurlaritzak babesturiko programaren esparruan, hau da, komisariotza egiten laguntzeko eta artearen munduko profesional berriak sortzen eta finkatzen laguntzeko programan.

Proiektua abenduaren 3tik urtarrilaren 31ra bitartean bisitatu daiteke. Sarrera doakoa izango da.

Mario Paniegoren erakusketa proiektuak publizitateak ingurunean duen presentzian eta hirietako eguneroko bizitzan sortzen duen zaratan jartzen du arreta, "Espazio publiko eta pertsonalaren zati handi bat kenduz", artistaren esanetan.

Zentzu horretan, ***Espacio publicitario (espacio público / espacio publicitario)*** proiektuak "gizarteak publizitateak gure bizitzetan eta, bereziki, espazio publikoan izan duen gorakadaren inguruan berraztertzea" proposatzen du, eta hiru zatitan egituratzen da. Lehenengoan, espazio publikoan publizitatearen erabilera mugatu duten munduko hainbat hiri aztertu ditu, São Paulo, Wrocław o



Grenoble adibidez, ekimen horiek nolakoak izan diren, nola garatu eta ezarri diren erakutsiz. Bigarreanean, praktika artistikoa erakutsiko du, gai honen inguruan lan egiten duten mundu osoko kolektibo eta artista ezberdinen aktibista, bai proposamenak egiteko publizitate-euskarriak erabiliz, bai hausnarketa soziala sortzeko espazio publikoa erabiliz. Laura Marte, Jason Eppink, Maider Lopez, Tony de Marco, Dobro eta Vermibus dira.

Erakusketa Irene Cuesta del Cura eta Eder Gutierrezen piezek osatzen dute. UPV/EHUko Arte Ederretako ikasleentzako eta IED KUNSTHAL-eko ikasleentzako deialdi irekiaren bidez aukeratu zituzten, proiektuan parte hartzeko.

Azken batean, proiektua herritarren parte-hartzeari irekitzen zaio, publizitateak ingurunean duen presentziaren inguruan. Bai ikastetxeekin, gai hori lantzerantz gonbidatzen baititu, publizitateko tresnak erabiliz; bai beste publiko-erkidego batzuekin bitartekari gisa jardunez, gaiaz dituzten kezkek eta ikuspegia azaltzeko, dinamika eta tailer desberdinen bidez.

Espacio Públic(itari)o erakusketa-proiektuaren barruan, Mario Paniegok azaroaren 27an, Black Friday-arekin batera, ekintza bat egin zuen Bilboko kaleetan eta Azkuna Zentroan, pantaila batzuen publizitatea hustea sustatuz, Vermibus artistak 2014tik bultzatzen duen bezala, NOADDAY ekimenaren bidez, Buy Nothing Day mugimenduarekin bat eginez.

Mario Paniego (Bilbo, 1978). Arte Ederretako lizentzia lortu zuen University of the West of England-en, eta doktoregoko ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean, non Ikasketa Aurreratuen Diploma eskuratu baitzuen (Gaur egungo Artearen Pentsamenduari eta Praxiari buruzko Ikasketa Aurreratuen Diploma). Aurrerago, Diseinuaren Kudeaketako Masterra (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Kultura Kudeaketako Masterra (Alcalá de Henaresko unibertsitatea) egin zituen.

ERAKUSKETAN PARTE HARTZEN DUTEN ARTISTAK

VERMIBUS. NO-AD DAY

Vermibus Berlingen bizi den artista da, kontra-publizitatearen esparruan jarduten du eta publizitateak nortasunaren homogeneizazioan dituen ondorioak seinalatzean oinarritzen du bere praktika.

NO-AD DAY 2012an Buy nothing Day* ekimenarekin bat etorritz sortutako proposamena da, publizitateak hiriko espazio publikoan duen eragina murriztea helburu duena. 2014az geroztik mundu mailako deialdi ireki bihurtu da, espazio publikoan publizitatearen erabileraren aurkakoa, Black Friday egunean publizitate-euskarriak husteko asmoarekin. (Lehen urtean 60 pertsonak baino gehiagok



parte hartu zuten aldi berean mundu osoko 20 hiritan baino gehiagotan, 300 publizitate-gune baino gehiago libratuz).

LAURA MARTE. PATRIMONI

Laura Martek, Balear Uharteetan bizi den Bartzelonako artistak, politika kultural eta sozialei buruzko ezagutza eta diskurtsoa sortzeko zeharkako tresna gisa lantzen du bere praktika artistikoa. Proiektuak testuinguru jakinetan kokatzen dira, askotariko gauzatze dinamika eta formatuen bidez.

Camuflajes bere proiektu zabalagoaren barruan, eta estrategia berari jarraituz, artistak publizitate-panelek ezkututzen duten paisaiaren ikuspegia itzultzen digu, haren balioa azpimarratzeko eta esanahiz berriz janzteko.

JASON EPPINK. PIXELATOR

Jason Eppink New Yorken bizi den Texasko komisario, diseinatzaile eta txantxazalea da. Espazio publikoetan aurrera eramaten dituen proiektuek bihurrikeria, harridura, eskuzabaltasuna, transgresioa, kultura librea eta anti-kontsumismoa bultzatzen dituzte, baita jakinarazi gabeko publikoaren parte-hartzea ere.

2007an, Jason Eppinkek luma-kartoizko eta landare-paperezko



gelaxka batzuk sortu zituen / eta New Yorkeko metro geltokietako sarreretako bideo pantailen gainean jarri zituen, / bertako iragarkiak arte geometriko abstraktu bihurtuz. / Eppinkek bideo bat argitaratu zuen proiektua zabaltzeko eta hobetzeko jarraibideekin. / Bere ekintza Aram Bartholl artista alemaniarren prototipoan oinarritu zen.

MAIDER LOPEZ. Off_Sight

Maidier Lopez artista donostiarrak espazio publikoan eta arkitekturan esku hartuz garatzen du bere lana. Bere obrek maiz ikuslearen parte-hartzea eskatzen dute, modu sotilean eraldatutako espazioaren parte bihurtuz.

Off_Sight: Artistaren zuzendaritzapean, eguneroko objektuak dituzten pertsonak publizitatea ikuspuntu zehatz batetik desagerrarazten dute. Ondoren, argazki-erregistroa hiriko publizitate-euskarrietan instalatu zen. Ekintza hori 2008ko irailaren 4an eraman zen aurrera SCAPE BIENNIALen barnean, Christchurchen, Zeelanda Berrian.

TONY DE MARCO. NO LOGO



Tony De Marco, Sao Paulon bizi den artista plastiko, diseinatzaile, tipografo eta argazkilaria da. Bere praktika artistikoaren zati bat kalean egiten dituen esku-hartzeetan oinarritzen du; esku-hartze horiek egunez egiten ditu, leku publiko edo abandonatueta.

NO LOGO Sao Paulon ateratako argazki sorta da, 2007an "Hiri Garbia" Legea ezarri ondoren hiri osoan zehar hustutako publizitate-egiturak erakusten dizkigutenak.

DOBRO. ZLO

Dobrok, Wroclaw-ko aktibista taldeak, ordena eta estetika sustatzen ditu espazio publikoan; kalean ekintzak eginez, politikaren eta bizitza sozialaren artean mugitzen diren edukiak sortuz, eta espazio publikoan eta sare sozialetan partekatuz.

ZLO aktibista talde bat da eta herritarrentzat espazio publikoa aldarrikatzen duten beste ekintza batzuen artean, hainbat urtez jardun du hiriko kaleetatik legez kanpoko publizitatea kentzen, ekintzak bideoz grabatzen eta sare sozialetan partekatzen.

IRENE CUESTA DEL CURA . ETA ZU ZERI BEGIRA ZAUDE

Irene Cuesta del Cura Bilbon bizi den artista asturiarra da, hor ikasten baitu Sorkuntza- eta Diseinu-gradua.



Eta zu zeri begira zaude lanak ikusleari egiten dio aipu zuzenean, publizitate-azaleraren "hutsean" irakur daitekeen galdera batekin. Galdera bat egiten digu, kritikoak izateko eta jakitun egoteko aurrean ditugun informazio-kontsumoaz eta publizitate-estimuluez.

EDER GUTIÉRREZ. IRAGARKIA

Ingeniari iheslaria eta artista bisual autoizendatua, multimedia performer izateko bokazioa duena. Arte Garaikide Teknologiko eta Performatiboko Masterra ikasten ari da UPV/EHU. «Nire nahia da egoaren geruzak bereiztea eta zeharkatzea, sorkuntza-prozesuen bidez urtzeko, hor hartzen baitut atsegina. Gizakiak sortutako sistema konplexuei buruz eta gure testuingurutik haietan nola bizi garen hausnartzea ariketa egokia izan daiteke haien barruan gure lekua aurkitzeko».

Iragarkia: «Mezu soil eta kezagarri bat dago zintzilik egunero ibiltzen naizen kaleko faroletatik. Galdera asko etortzen zaizkit burura: Inpaktua aztertu? Inpaktua marketinaren esparruan? Zenbateraino da eraginkorra iragarki hori, jarrera eta kokapen zehatz horretan? Zenbateraino litzateke errentagarria norbaitentzat publizitate-espazio horrengatik ordaintzea? Edo informazioz betetako espazio publiko horri begiratzen dioten pertsonengan duen inpaktua? Nola eragiten die eguneroko bizitzan? Eragiten al die



beren pentsamenduetan eta ekintzetan ? Sentsazioren bat sortzen al die?».

PROGRAMA PÚBLICO

OSTEGUNA ABENDUAK 10

KOMISARIOAREKIN TOPAKETA

Erakusketa-proiektuaren barruan, Mario Paniego komisarioarekin topaketak egingo dira, haren proposamena hobeto ezagutzeko eta hurbiltzeko.

Lehena ostegunean, abenduaren 10ean, izango da, 17:00etatik 19:00etara (ordu erditik ordu erdira), Laborategi Aretoan. Topaketaren aurretik erakusketa bisitatzea gomendatzen zaie interesatuei.

ASTEAZKENA, URTARRILAK 20

MAHAI INGURUA

Azalpen-proposamenak jorratzen duen gaia aztertzeko, mahai-inguru bat egingo da, eta honako hauek hartuko dute parte:

- Pablo Vilá / Comunitac-eko CEO. Bilboko tranbian publizitateaz arduratzen den enpresa.



- Tomás del Hierro/Bilboko Udaleko Espazio Publikoko zuzendaria
- Karmele Herranz Pascual / Gizarte eta Ingurumen Psikologian doktorea da, eta TECNALIA Research and Innovation-en Hiri Konforteko ikertzaile espezialista. Gaur egun, batez ere Ingurumen eta Jasangarritasun Arloan garatutako proiektuetan dimentsio soziala (psikosoziala) integratzea du helburu.
- Ula Iruetagoiena. UPV/EHUko arkitektoa eta irakaslea. Ohiko hirigintzaren ordezkoko ereduak bilatzen dihardu, eta hiriek eta lurraldeak ekosistema katalizatzaile bihurtu nahi izatea eskatzen du.

Asteazkena, urtarrilak 20 18:00etan

Mediateka. TK02

Sarrera librea aldez aurretik webgunean izena emanda.